



Bertsozale Elkartearen Berripapera

 ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko URRIA - 187. zenbakia


18 bertsozaleekin abiatuko da lehen Bertsokabi Sariketa

Urriaren 5ean hasiko da Nafarroako Bertsozale Elkarteak herrialdeko bertsolari gazteentzat antolatutako sariketa berria. Iruñerriko gazteak bertsozaletzeko xedea du sariketak, bertsoa hiriburuko eremu informaletara eramanez.

16 eta 30 urte arteko hemezortzi bertsolari eman dute izena Nafarroako Bertsozale Elkarteak aurki abiatuko duen Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketan. Bikoteka ariko dira bertsolariak, zozketak erabakitako moduan. Osotara, lau saio izango ditu sariketak, hiru kanporaketa eta finala, eta Iruñerriko taberna eta gaztetxeetan jokatuko dira. Kanporaketetako irabazleak lehiatuko dira finalean.

Nafarroako bertsolari gazteei trebatzeko eta jendaurrean kantatzeko aukera emateaz gain, Iruñerriko publikoak bereziki gazteak bertsozaletzeko xedea du sariketak, bertsoa hiriburuko eremu informaletara eramanez. Era berean, egitasmo horren bitartez, Eugenio Arraiza (Iruñea, 1936-2015) zenaren figurari gorazarre egin nahi dio Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Kultur ekintzaile nekazaina, Nafarroako egitasmo askoren bultzatzaile izan zen Arraiza; besteak beste, Nafarroako Bertsozale Elkarteko fundatzaileetako bat eta lehendakariordea izan zen urteetan.

Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketarak orain arte Goizuetan egiten zen Xalto Sariketarak utzitako tokia beteko du aurrerantzean. 1992an jarri zen martxan Xalto Sariketa, eta hamabi alditan jokatu zen 2015era arte. Orain, sariketa berri honekin, Iruñerria eramateaz gain, molde informalagoaren aldeko apustua egiten du elkarteak.



Binaka ariko dira bertsolariak urrian jokatuko den Bertsokabi sariketan.//XDZ

1. kanporaketa
Urriak 5, 19:30 | Iruñeko Suberri Taberna
 - Iker Gorosterrazu eta Ander Baiano
 - Alazne Untxalo eta Irati Majuelo
 - Patxi Castillo eta Egoitz Gorosterrazu
2. kanporaketa
Urriak 11, 19:30 | Iruñeko Herriko Taberna
 - Joanes Illarregi eta Ekain Alegre
 - Josu Sanjurjo eta Iñigo Gorostarzu
 - Mikel Lasarte eta Idoia Granizo
3. kanporaketa
Urriak 20, 20:30 | Barañaingo Gaztetxea
 - Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi
 - Saioa Alkaiza eta Aitor Irastortza
 - Saats Karasatorre eta Unai Artieda

Finala. Urriak 26, 19:30 | Iruñeko Arrano Elkarte



**ANDONI
EGAÑA MAKAZAGA**
Alkiza, 2017-IX-08

Gaia: Igande goiza da eta atzo zure alaba nerabea parrandan atera zen: Gaur bera lo dagoen bitartean zu bere oinetakoak garbitzen ari zara.

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

Ai zapatilak zein salagarri
zapatilak a ze prenda!
Atzo alaba iluntze aldean
etxetik txintxo irtenda
gaur pentsatu det "Garbitu on bat
eman behar diek bengal!
Garbitzen hasi ezkerero gero
dena errex egiten da".
Garai batean gure aita zanak
berdin egiten zuen da.

Zaharra etxean, gaztea porai
bizitzaren espirala
garai batean ta gaur egun`e
ostirala ostirala.
Bi zapatila zikin-zikinak
ez naiz harritu aibal!
Baina kolpetik ez det hartu ba
sorpresa bat mundiala!
konturatu naiz galtzerdi hauek
etxeok ez dirala.

Ez du lortuko bere aitaren
bihotza minberatzea
komeniko da lehenbizi hauek
ur berotan beratzea.
Ze galipota! Ze txikle pila!
A ze nolako trantzea!
Harrigarri da goizez alaba
etxera hurreratzea
normalena zen festagunean
pegatuta geratzea.

26.300 ikasle eta 47 irakasle ariko dira ikastetxeetan bertsolaritza lantzen ikasturte honetan

Materialgintzan lanketa handia egin da azken bi urteetan, eta egindakoaren emaitza eskuartean daukate irakasleek eta ikasleek.

Abiatu berri den ikasturte honetan ere handitzen doa hezkuntza arautuan bertsolaritzak daukan presentzia. Guztira 26.300 ikasle eta 47 irakasle ariko dira ikasturte honetan Euskal Herriko 507 ikastetxetan bertsolaritza proiektuan barneratuta. Ikastetxe publikoak, kristau eskolak zein ikastolek hartzen dute parte ekimenean.

Eskolak emateko *Mundu bat bertso* ikasmateriala darabil Bertsozale Elkartek azken bi ikasturteotan. Gelaz gela bertsolaritza irakasten duten elkarteko lantaldeak sortutako materiala da. Sekuentzia didaktikoak, gaztetxoei zuzendutako bertso sortak, jolasak, teknikari buruzko azalpenak... biltzen ditu. Liburuko ilustrazioak Mirari Sagarzazuk eginak dira, eta Unai Iturriagaren eta Patxi Gallegoren komikiak ere badakartza. Diseinua eta argitalpena Lankuk egin du. Gainera, bertso sortak musikatu egin dira Oskar Estangaren laguntzarekin, eta pantaila baliatuz abesteko egokitu dira. Doinutegia ere badakar ikasmaterialak, baita plazatako bat-bateko bertsoaldi hautatuen bideoak ere.

Bertso eskolak ere, martxan

Ikasturtearekin batera, bertso eskolak ere martxan daude dagoeneko. Herrialde guztietan daude, 120 herri inguruan, eta ateak zabalik dituzte edonorentzat, gazte zein heldu.

Inguruan zein bertso-eskola dituzun jakin nahi izanez gero, eta izena emateko egin beharrekoak jakiteko, jarri harremanetan zure herrialdeko Bertsozale Elkartearekin.



Euskal Herriko lurralde guztietan eskaintzen da bertsolaritza ikastetxeetan. //XDZ

Bertsolaritza Kultur Intereseko Ondasun izendatuko du Nafarroako Gobernuak

Foru Legean adierazitako babes maila gorena jasoko du bertsolaritzak; udazkenean sartuko da indarrean neurria.

Kultur Intereseko Ondasun izendatuko dute Nafarroan bertsolaritza. Gobernuaren erabakiz, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legean adierazitako babes maila gorena jasoko du bertsolaritzak lurraldean.

Urte hasieran egin zuen Nafarroako Bertsozale Elkartek izendapenerako eskaera, bertsolaritzak herrialdean izan duen eta daukan presentziari buruzko informazioa aurkeztuz. Txostenean bertsolaritzaren alderdi historiko eta etnografikoak, errotze maila eta komunitateen parte-hartzea, bilakaera eta transmisio moduak azaldu zituen Elkartek. Espedientea, gainera, Nafarroako Kultura Ondare Inmaterialaren Artxiboko zuzendari tekniko eta etnolinguista den Alfredo Asiain Ansorenaren txosten batekin osatu da. Nafarroako Gobernuaren arabera, "Nafarroan ongien gorde den eta azpimagarriena den errepertismoa" da bertsolaritza.

Nafarroako Kultura Kontseiluak prestaturiko txostenaren tramiteak bukatutakoan sartuko da indarrean neurria, aurtengo udazkenean bertan.



Udazkenean bertan sartuko da indarrean neurria. //XDZ

Ikerketa soziologikoa gauzatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusian

Inkestatzaileak ibiliko dira txapelketako saioetan bertsozalearen profila zein den ikertzeko; Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUK gauzatuko dute ikerketa.

Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUK ikerketa abiatu dute Txapelketa Nagusiaren bertsozalearen profila zein den aztertzeko. Txapelketan dabilen bertsozalea nolakoa den jakin nahi da, zer pentsatzen duen txapelketari buruz eta, oro har, bertsolari buruz. Karlos Aizpuruak Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza arduradunak eman dizkigu azalpenak: "Ikerketa zabala eta sakona bideratu genuen iaz Mintzolatik, bertsolariaren diskurtso propioa edo berezitua duten bertsozaleak elkarriketatuta eta Euskal Herri osoko plazetako 600 entzuleri galdetuta", azaldu du. Oraingo hau, ostera, txapelketari dagokion zatia izango da. "Informazio hori garrantzikoa da bertsolariaren sustapenean, transmisioan, eta ikerkuntzan hurrengo urteetarako diseinatuko den estrategiarako; argibideak emango dizkigu, bertsolariaren bera, dela bertsozalearen mugimendu gisa, hobeto gara dadin".

1994an eta 2006an ere egin ziren eite bereko aurreko ikerketak. "Ordukoak baliagarriak izan dira bertsolariaren garapen estrategian asmatzeko", esan du Aizpuruak, "eta ez hori bakarrik, denboran zeharreko tendentzia edo bilakaera nolakoa izan den ikusteko ere balio dute", gaineratu du.

Saioz saio, inkestatzaileak

Ikerketa soziologikoaren sukalde lan eta koordinazioan Mintzolatik ariko dira. Baina landa lana egiteko lantaldea osatu dute. Bertsozale Elkartean bidez egin zen deia, borondatezko lagunak behar zirela esanez. "Oso pozik gaude erantzunarekin, 14 gazteko talde ederra osatu baita, bertso eskoletan dabiltzanak gehienak", dio Aizpuruak, "horrek erakusten du oraindik ere Bertsozale Elkartean oinarrietako bat, militantziarena, sendoa dela" gaineratu du. Saio bakoitzean 6-7 inkestatzaile ariko dira, finalean gehiago, eta bakoitzak lauzpabost inkesta egingo ditu, saioa hasi baino

lehen. Inkestako galdetegiak bera elkarteko sailetatik eta herrialdeetatik jasotako ekarpenekin osatu eta eguneratu da, 2006ko emaitzak oinarri hartuta.

Borondatezko inkestatzaileez gain, ikerketak laguntza teknikoa ere izango du. "EHUren aldetik asko estimatzen dugun laguntza teknikoa dugu, Harkaitz Zubiri ikertzailearen eskutik", azaldu du Aizpuruak. "Arlo teknikoan lagunduko digu, baita analisisian ere". Aipatu behar da Mikel Laboa Katedrak ere babestuko duela ikerketa.

Soziologikoki, pisu handia

Aipatu moduan, UPV/EHUKo Harkaitz Zubiri ikertzaileak arlo teknikoan lagunduko du, eta bere ustez ikerketak ikuspuntu soziologikotik pisu handia dauka. Guztira, ia 3.500 inkesta egingo dira, 32 elkarriketa, 3 eztabaida talde, eta delphi bat 27 partaiderekin. "Guk 2005eko Txapelketa Nagusian hasi genuen ikerketa, bosteko talde batek -Xabier Aierdik, Alfredo Retortillok, Juan Aldazek, Eider Alkorkak eta Harkaitz Zubirik berak-, eta orduan ikasi genuenetik abiatu da azken ikerketa", azaldu du.

Horrelako ikerketek garrantzia handia daukatela azpimarratu nahi izan du Zubirik: "Ez da ohikoa kultur elkarre batek ikerketarako ekimen hain handiak gauzatzea. Gaur egun, gizarte informazionalan inoiz baino gehiago, informazioa oso baliagarria da; ea ikerketa honetatik datu baliagarriak ateratzea lortzen dugun".

Saioetara zoaztenean, beraz, han ikusiko dituzue inkestatzaileak. Eta bertsozaleok galdetegiak erantzutera animatu nahi zaituztegu, bertsolariaren etorkizuneko pausoak ematen laguntzeko.



Inkestatzaileak ibiliko dira saioz saio bertsozaleei galderak egiten.//XDZ



Puntu jarrita

IBAI ESOAIN ARRUTI

Tentazio gutxi Joxe Luix, gutxi eta apalak. Egiari zor, lagunekin txapelketako saioen bat entzutera joan eta handik bueltan kontu-kontari afaritxo bat egiteak tentatzen naik gehien une hauetan, garaian garaikoa!

Asko eman zidak bertsoak, dudarik gabe. Zenbait garaitan pila bat gozatu izan diat kantuan eta orain ere, ipuin eta bertsoak tartekatzen ditudan noizbehinkako emanalditxoetan oso gustura sentitzen nauk.

Behin hori garbi utzita, seguraski gaztetxoegitan hasiko gintuan bertsotan eta egia duk etxetik kanpo lehia kutsua izaten zutela hasierako saioxa haiek, bai geroxeago ere. Gure baitako eta gure arteko lehiak. Susmoa diat, behin eskaparatean jarri ginela eta geroztik lehia moduko bat bizi izan dugula bertsolariok, geure baitan, luzaz. Espazio bat okupatu nahi izan genian. Bakoitzak berea nagusiki. Gure lekutxo aldarrikatzen genian eta aritzeko balio zuen guztiari bai esatera ohitu gintuan. Denari bai eta gehiago nahi! Nahikoa ez eta formatu desberdinetako saioak sortu genizkian, lur berriak jorratu... Etzekiat motel! Etzekiat etengabeko presentzia nahi horrek zenbateraino elikatu duen gure jarduna. Larregi agian, tren txu-txu bertsolariak izanda ere.

Nik ihes-bete moduko bat bizi diat. Ez duk auto-kritikak sormena eten didalako, ez duk auto-zentsura bat. Zentzuratzat bat duk gehiago. Zaletasun primario horretara bueltatzatze bat. Jarduteari ihesean jardunak bete nagan. Bertsolariak enpatiaz baino, sinpatiaz entzun nahi dizkiat. Belarri onekoa egin nauk. Beste distantzia bat hartu diat eta osasuntsuagoa zaidak, tentagarriago nahi baduk. Jende prestuagoa eta prestatuagoa bazebilek inguru-marian eta dabiltzala!

Hi, Imanol Lizarazu, guretzat Habana, Igeldon Txirrito (Txirritara iristen ez eta), zer pasatzen da bertsotan gehiagotan egingo luken baten burutik?

Koplak

Lanku bertso zerbitzuak enpresak diseinatzaile-maketatzailea behar du

Egun erdiko lan kontratua da eskaintzen dena, Andoaingo Martin Ugalde Kultur parkeko egoitzan. Urriaren 9ra arte bidali ahal izango da Curriculum Vitae eta motibazio gutuna: postaz Lankuko egoitzara edo posta elektronikoz lanku@lanku.eus helbidera. Informazio gehiago www.lanku.eus atarian.

Poto-Finixa



Larraldea saria bertso paper lehiaketa, abian

Lapurdi 1609 eta Bertsularien Lagunak elkarteek antolatuta dute, Euskal Kultur Erakundearen babesarekin. Bertso paper lehiaketa berri honek Senpereko eta Euskal Herri guztiko bertso idazleei beren lanak argitara emateko parada eskaini nahi die. Lanak igortzeko epea azaroaren 1ean amaituko da. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

**LIBURU
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA